



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, [REDACTED] JAUNAK BIZKAIKO EUSKAL JOKO ETA KIROL FEDERAKUNDEKO DIZIPLINAZKO EPAILE BAKARRAREN EBAZPENAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEA EBAZTEN DUENA (EBAZPEN HORRETAN, LIZENTZIA LAU HILABETEZ ETETEKO ZEHAPENA EZARTZEN ZITZAION)**

---

**Espediente-zenbakia: 35/2017**

**AURREKARIAK**

**Lehena.**- [REDACTED] jaunak, 2017ko apirilaren 21ean, errekurtsoa jarri zuen Posta Zerbitzuan (Eusko Jaurlaritzan 2017ko apirilaren 25ean sartu zen), Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundeko diziplinazko epaile bakarrak 2017ko martxoaren 23an emandako ebazpenaren aurka (2017ko apirilaren 17an jakinarazi zitzaion). Ebazpen horren bidez, bere federazio-lizentzia lau hilabetez eteteko zehapena ezarri zitzaion, Euskadiko Herri Kirol Federazioaren Diziplinazko Arautegiko 7.2.b) artikuluan tipifikatutako arau-hauste larri bat egiteagatik.

**Bigarrena.**- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean, KJEB) errekurtsu hori izapidetzea onartu zuen eta Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundeari espediente eskatu zion. Horrekin batera, alegazioak egitea ahalbidetu, eta, kasuan-kasuan, egokitzat jotzen zituen froga-eginbideak proposatzeko aukera eman zion.



**Hirugarrena.**- 2017ko ekainaren 23an (posta elektronikoz bidez), Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundeak bidalitako espedientea jaso zen; 2017ko ekainaren 27an, berriz (Posta Zerbitzuan aurkeztu zen eguna), alegazioen idazkia.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehena.**- KJEBek du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, Euskadiko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legeko 106.2.c) artikuluan, Kirol Diziplinari buruzko Arautegia ezartzen duen urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuko 29. artikuluan eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuko 3.a) artikuluan xedatutakoaren arabera. Azken horri jarraituz, aipatutako organoaren eskumenetako bat «*kirol-diziplinako ahalmena duten kirol organo titularren erabakien aurka jarritako errekurtsioak aztertzea eta ebaztea*» da.

**Bigarrena.**- Errekurtsioaren xede diren gertakariak 2016ko irailaren 24an gertatu ziren, Laukizen (Bizkaia) egin zen «Laukizko Idi Proba» izeneko proban.

Egun horri zegokion txapelketako aktan, federazioaren espedienteko agirien artean jasoan, honako hau adierazten da:

«TXARTEL URDINA: [REDACTED] 29' 50". TXARTELA [REDACTED] ATARA DIOT ETA BERAK ERRESPETU FALTA EDUKI DAU NIGAZ ([REDACTED]) ESAN DIOT EZ BADAKIELA KONPORTATZEN IDIAK ETXERA EROATEKO ETA HOR GELDITU».

2016ko irailaren 24ko aktaren eranskinean, pista-epaileak xehetasun handiagoz deskribatzen du gertatutakoa:



«[REDACTED]-(R)EN (2. zenbakidun fitxa [REDACTED]) ETA NIRE [REDACTED]. ([REDACTED] zenbakidun fitxa, pista-epailea) ARTEKOA LAUKIZEN GERTATU DA, 2016KO IRAILAREN 24KO (LARUNBATA) IDI-PROBETAN, LAUKIZKO ALKATEAREN ([REDACTED] JAUNA), PROBEN ANTOLAKUNTZAREN, BERTARATUTAKO PERTSONEN ETA [REDACTED] MAHAIKO EPAILEAREN ([REDACTED] zenbakidun fitxa) AURREAN.

HONAKO HAU GERTATU DA: NEUK, EPAILEA IZANIK, TXARTEL URDINA ATERA DIOT [REDACTED]-(R)I, 29' 50" MINUTUAN. PROBA AMAITUTAKOAN, ESAN DIT GERATZEN ZENERAKO, EZ NIOLA TXARTELIK ATERA BEHAR. NIK ERANTZUN DIOT EZ DIODALA DENBORARI BEGIRATZEN; AKUILARIAREN EKINTZA ZUZENA EZ DENEAN ATERATZEN DUDALA TXARTELA, 4. SEGUNDOAN, 8. MINUTUAN EDO 28.EAN IZAN.

NIGANA ZUZENTZEN JARRAITU DU, GERO ETA OZENAGO ERANTZUTEN ETA TONU OLDARKORREAN. ESAN DIOT NIK ERE BADA KIDALA OIHU EGITEN, BAINA EZ NAIZELA OIHUKA ARI, BERAZ, MANERAK ZAINTEZKO ETA ERRESPETUZ JOKATZEKO ESKATU DIOT.

OIHUKA ETA IRAINKA JARRAITU DUENEZ, ESAN DIOT ADOS EZ BADAGO ETA BEHAR BEZALA JOKATZEN EZ BADA KI, IDIAK HARTZEKO, ETXERA JOATEKO ETA HAN GERATZEKO, NI EZ NAIZELA INOREKIN EZTABAIDAN ARITZERA ETORRI ETA, ARE GUTXIAGO, OIHUKA ETA ERRESPETURIK GABE ZUZENTZEN BAZAIZKIT. OIHU EGIN GABE HITZ EGITEN EDO BEHAR BEZALA PORTATZEN EZ BADA KI, EZ DUGULA EZER GEHIAGO ELKARRI ESATEKO.



HORI AKTAN IDATZI DUT (oharren atalean) ETA, HARK ESKATUTA,  
ZER IDATZI DUDAN IRAKURRI DA. MAHAIKO EPAILEAK  
[REDACTED] ([REDACTED] zenbakidun fitxa) IRAKURRI DIO.

AKTAREN KOPIA JASOTZEAN, [REDACTED]-(e)K OIHUKA ETA  
TONU MEHATXAGARRIAN, HONAKO HAU ESAN DIT:

«ZEU ZARA PORTATZEN EZ DAKIENA, BETI ATERATZEN DIDAZU  
TXARTELA, ZERBAIT DAUKAZU NIRE AURKA; BUENO, DENEK  
DAUKAZUE ZERBAIT NIRE AURKA ETA BESTE BATZUK ZAINDU  
BEHARKO ZENITUZKETE.

ZEURE JOKAERA, TXARTELA ATERATZEA; DENA BUKATUKO DA,  
NEU ARDURATUKO NAIZ, IKUSIKO DUZU... BAINA ZAUDE LASAI,  
ZURE EPAILE-BIZITZA EZ DA LUZEA IZANGO, BERAZ, ARG  
IBILI».

ERREPIKATU DIOT EZ DAUKADALA EZER BERE AURKA, EZTA  
INOREN AURKA ERE, TXARTELA ATERATZEN DUDALA  
AKUILARIAK ZUZENA EZ DEN EKINTZAREN BAT EGITEN  
DUENEAN, AKUILARIA NOR DEN ALDE BATERA UTZITA.

GERO ETA OZENAGO EGIN DU OIHU ETA GERO ETA  
HASERREAGO. EZ DUDALA IDEIA PUTARIK... EA JENDEAK ZER  
PENTSATUKO DUEN NITAZ.

BERE JARRERA IKUSITA, ETA GERO ETA TONU  
“OLDARKORRAGOAN” ARI DENEZ, EZER EZ ESATEA ETA  
“ELKARRIZKETA” AMAITZEKO BURUAREKIN BAIEZKO KEINUA



EGITEA ERABAKI DUT. BAINA, UNE HORRETAN, [REDACTED]-(e)K  
HONAKO HAU ESAN DIT:

“ESKERRAK GIZONA EZ ZAREN, BESTELA, ORAINTXE BERTAN  
EMANGO NIZUKE... BAINA ADI IBILI, EA PROBETATIK IRTETEAN  
EDO EDOZEIN IZKINATAN ZERBAIT GERTATUKO OTE ZAIZUN;  
ARGI IBILI, EA ZERBAIT PASATUKO OTE ZAIZUN».

HORI GUZTIA DELA ETA, ERANSKIN HAU IDAZTEA ERABAKI DUT  
ETA, HONEN BIDEZ, GERTATUTAKOA ETA [REDACTED] JAUNAK,  
PROBETAKO EPAILEA IZAN ETA TXARTELA ATERATZE  
HUTSAGATIK, NIREKIKO IZAN DUEN JOKABIDEA ETA EGIN  
DIZKIDAN MEHATXUAK JASOTA UZTEA».

Deskribatutako jokabidea Euskadiko Herri Kirol Federazioaren  
Diziplinazko Arautegiko 7.2.b) artikuluan tipifikatutako arau-hauste larritzat jo  
zen, hitzez hitz honela adierazita:

«Arau-hauste larriak kontsideratuko dira ondorengoak:

b) *Epaile jaun/andre, zuzendari jaun/andre, kirolari, ikusle ala,  
orokorrean, edonolako pertsona mehatxatzea, erasotzea ala iraintzea,  
kirol proba ala lehiaketa baten zehar».*

**Hirugarrena.-** [REDACTED] jauna ez dago ados jarritako zehapenarekin.  
Horregatik, espedientea largesteko eta artxibatzeko eta prozedura nulutzat  
jotzeko eskatu du, prozedura ez delako bete eta horrek babesgabetasuna  
eragiten diolako agertutako alderdiari, edota, modu subsidiarioan,  
errekurtsoaren xede diren jazoerak tipifikatuta ez egoteagatik edo, modu  
subsidiarioan, hutsegite arin gisa tipifikatzea, Euskadiko Herri Kirol



Federazioaren Diziplinazko Arautegiko 7.3.a) artikuluan jasotako moduan, eta, hala, 600 euroko isuna ezartzea zehapen gisa, 8.3.c) artikuluan xedatutakoarekin bat.

Errekurtsogileak laburki azalduko ditugun honako arrazoi hauek argudiatzen ditu, bere errekurtsotik ondorioztatzen diren asmoen defentsan:

1) Lehenik eta behin, prozeduran zenbait akats egin direla, babesgabetasuna eragiten diotela eta, beraz, errekurritutako egintzaren erabateko deuseztasuna deklaratu beharko litzatekeela adierazten du.

Kontuan hartuta kirol-diziplinako epaile bakarrak 2017ko otsailaren 21ean «Behin betiko kargu-orria» idatzi zuela eta, horren harira, errekurtso honen xedea den ebazpenak kontuan hartu ez zuen deskargu-orri bat aurkeztu zuela, adierazten du 2017ko urtarrilaren 9an beste kargu-orri bat formulatu zela, ebazpen-proposamen batekin, baina espedientea izapidetu zuen [REDACTED] andreak formulatu zuela, eta hori Euskadiko Herri Kirol Federazioaren Diziplinazko Arautegiaren 34.1 artikuluan xedatutakoaren aurkakoa dela. Ondorioz, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47. artikuluko 1. zenbakiko a), b) eta e) letretan xedatutakoa aplikatuz, nulutzat hartu behar da, beti ulertu delako kargu-orria diziplinako epaile bakarrak formulatu behar zuela, eta geroago egin zuelako, «Behin betiko kargu-orria» izeneko dokumentuaren bidez.

Bada, errekurtsoaren xede den ebazpenean, 2017ko martxoaren 23koan –errekurtsogilearen arabera, 2017ko apirilaren 17an jakinarazia–, honako hau argudiatzen da: Euskadiko Herri Kirol Federazioaren Diziplinazko Arautegiaren 35. artikuluan xedatutakoaren arabera, diziplinako epaile bakarrak emandako ebazpenak espedienteari amaiera ematen zion federazioari zegokionez, baina



«ebazpentzat» hartzen den hori, egiazki, «kargu-orria» da; beraz, diziplinako epaile bakarraren argudioa desegokia da.

2) Gaiaren mamiai dagokionez, errekurtsogileak ez ditu bere gain hartzen pistako epaileak aktan adierazten dituen gertakariak.

Errekurtsogileak onartzen du epaileari ohar bat egin ziola. Haren arabera, proba amaitzeko bost segundo falta zirenean, epaileak kargu-hartze bat egin zion, abereari akuilua arin aplikatzeagatik, baina kargu-hartzea proba amaitzeko hamar segundo falta zirenean egin ziola jaso zuen epaileak, eta, agertutako alderdiak argudiatu duenez, oharra egin zion, bere ustez epaile baten inpartzialtasuna gertakarien unea zintzo islatzetik hasten delako.

Horiek horrela, gertakariak Euskadiko Herri Kirol Federazioaren Diziplinazko Arautegiko 7.2.b) artikularen arabera arau-hauste larri gisa tipifikatzea gehiegizkoa dela iruditzen zaio, errekurtsogileak ez zuelako epailea mehatxatu, beldurrarazi edo larriki iraindu; aitzitik, proba amaitzeko bost segundo falta zirenean kargu-hartze bat egitea egokia ote zen zalantzan jarri baino ez zuen egin.

Horregatik, gertakariak Diziplinazko Arautegiko 7.3.a) artikularekin lotzeko eskatu du, zeinak «*epaile jaun/andre bati eginiko irain edo lotsagabekeria arinak*» arau-hauste arintzat hartzen dituen.

Gainera, arrazoizkoa iruditzen zaio, Diziplinazko Arautegiaren 5. artikuluan xedatutakoarekin bat, 21.2 artikuluko b) eta e) letretan aurreikusitako aringarriak aplikatzea.

3) Azkenik, zehapen-ebazpenean gertakarien tipifikazioaren eta ezartzen den zehapen zehatzaren arrazoia ondo azaldu behar dela uste du, eta Kirol



Diziplinari buruzko Arautegia arautzen duen urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuaren 26. artikulua bete behar dela. Artikulu horrek honako hau jasotzen du:

*«(...)1. Kiroleko diziplina-prozeduretan emandako probidentziak eta erabakiak zioztatuak izan behar dute eta hori doakienei emango zaie horren berri –kasu bakoitzean ematen diren ebazpenak edo akordioak eta murtziloak edo errekurtsioak adieraziz–,(...)».*

**Laugarrena**.- Errekurtsioa jartzeko adierazitako arrazoiak aztertzea igaroz, errekurtsioaren idatziko ordena alderantzikatuko dugu eta, horrela, lehendabizi, errekurtsioan planteatutako funtsezko gaia aztertuko dugu, alegia, arau-haustea eragin duten gertakarien balorazioa eta errekurtsogileak egiten dituen alegazioak, bere jokabidea Diziplinazko Arautegiaren 7.2.b) artikuluan tipifikatutako arau-hauste larritzat jotzea ustez okerra izateari dagokionez, eta, ondorioz, zehapenaren xede diren gertakariak aipatutako Euskadiko Herri Kirol Federazioaren Diziplinazko Arautegiko 7.3.a) artikuluan tipifikatutako arau-hauste arintzat hartzeari eta 21. artikuluko b) eta e) letretako aringarriak aplikatzeari dagokionez.

Diziplinazko zehapenari bide eman dioten gertakariak, txapelketako aktan eta horren eranskinean jasotakoak (lehen transkribatu dira), KJEBen ustez, bat datoz aipatutako Diziplinazko Arautegiko 7.2.b) artikuluan tipifikatutako arau-haustearekin, zeinaren arabera arau-hauste larriak honako hauek diren:

*«Epaile jaun/andre, zuzendari jaun/andre, kirolari, ikusle ala, orokorrean, edonolako pertsona mehatxatzea, erasotzea ala irainak egitea, kirol proba ala lehiaketa baten zehar».*





Egiazki, errekurtsogileak pistako epaileari zuzendutako iruzkin eta deskalifikazioak irain larriak dira, mehatxuzko edo bortxazko tonuan egindakoak eta, jakina, ez dago halakoak inolaz ere justifikatzerik.

Hortaz, kide anitzeko organo hau bat dator kasu honetan aplikatutako irizpidearekin; izan ere, errekurtsogileak txapelketaren funtsezko une batean (proba amaitzeaz zegoenean, amaitzeko bost segundo edo hamar falta ziren garrantzirik gabekoa izanik) ardura handia eskatzen duen lan bat egiten ari zen pertsona bati –marrazaina– zuzendutako hitzek errespetu- eta adetasun-falta handia adierazten dute, eta diziplina-organoak jasotzen duen zehapen larriena ezartzea justifikatzen dute.

Errekurtsogilea pistako epailea iraindu, mehatxatu edo hertsatu zuela ukatzera mugatzen da, eta bere adierazpenak jasotako kargu-hartzeagatik egindako ohar edo aipamen soil gisa kalifikatzen ditu, baina ez du inolako frogarik aurkezten epaileak txapelketaren egunean idatzitako aktaren egiazkotasun-presuntzioa bertan behera uzteko.

Egiazki, gogoan izan behar dugu kirol-txapelketetako arbitro edo epaileen aktek egiazkotasun-presuntzioa dutela (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2003ko urriaren 7ko epaiaren arabera –JUR 2003\104967–). Horrek esan nahi du presuntzio hori hutsaldu nahi duen alderdiak aurkako frogaz zehatz, eraginkor eta erabat sinesgarria aurkeztu behar duela, eta inolako frogarik adierazten ez duten aipamen soilak ez direla nahikoak aktaren edukia indargabetzeko.

Ildo berean, Euskadiko Kirolaren Legeak (ekainaren 11ko 14/1998 Legea), 50. artikuluan, kirol-lehiaketan gidaritzan hainbat kategoriatako epaileei esleitu eta gero, adierazten du hori egiten duten bitartean hartutako erabakiak egokitzat joko direla eta epaileen aktak lehiaketak normaltasunez garatzeko beharrezkoak diren bitarteko dokumentala izango direla.



Azaldutako guztia dela eta, desegokia da arau-haustearen tipifikazioa eta kalifikazioa aldatzea.

Halaber, desegokia da, errekursoan planteatzen den moduan, Diziplinazko Arautegiko 21.2 artikuluko a) eta e) letretako aringarriak aplikatzea, honako arrazoi hauek direla eta: (I) a) letrako aringarria ez da aplikagarria, arau-haustearen aurretik ez zelako inolako probokaziorik izan (interesdunak kargu-hartze bat jasotzea ezin da, inola ere, probokaziotzat hartu); eta (II) «e) *letrako*» aringarria ere ez da aplikagarria, ez dagoelako e) letra duen aringarririk kasu honetan aplikatu den Diziplinazko Arautegian.

**Bosgarrena**.- Azkenik, errekurtsogilearen arabera espedientea izapidetzean gertatu diren omisioei edo akats formal edo prozedurazkoei buruz arituko gara. Errekurtsogileak dioenez, horiek babesgabetasuna eragin diote, eta, ondorioz, espedientea nulutzat hartzea justifikatuta legoke.

Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundeak 2017ko ekainaren 27an aurkeztutako alegazio-idatziaren arabera, ez da akats formal edo prozedurazkorik egin, eta jarraian adieraziko ditugun bi alegazio mota egin dira.

Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundeak erabilitako lehen argudioa honako hau da:

*«(...) lehenik eta behin, adierazi behar dugu gure asmoa diziplina-prozedura une oro betetzen saiatu garela frogatzea dela, interesdunaren eskubideak al bait hobekien babesteko.*

*Horregatik, federazio honen ustez, errekurtsogilearen aldetik federazio honetako diziplinako epaile bakarrak 10/16 espedientean, 2017ko*



*otsailaren 21ean, emandako ebazpena kargu-orri «hustzat» hartzea okerra da. Izan ere, irakurriz gero, argi geratzen da, ebazpenaren literalak adierazten duenez, espedientea izapidetu zuen [REDACTED] andreak aurretik egindako kargu-hartzea, 2017ko urtarrilaren 9koa, behin betiko bihurtu zela, interesdunak, [REDACTED] jaunak, ez zuelako alegaziorik aurkeztu haren aurka. Horrela, diziplina-erregelamenduan xedatutakoa bete zen.*

*Interesdunak ezer egin ez zuenez, prozesuak aurrera jarraitu behar zuen».*

Bigarren argudioa hau da:

*«Bigarrenik, Federazioak prozedura zorroztasun handiz bete duela esan behar dugu; izan ere, espedientea izapidetu duen pertsona eta ebazten duen epaile bakarra bereizi ere egin dira, eta, hala, zehapenezuzenbidean dauden teoria berritzaile eta bakezaleenei jarraitu zaie.*

*Gainera, espedientean argi geratzen da interesdunari behar bezala jakinarazi zitzaizkiola beharrezko alderdi guztiak, eta 2017ko apirilaren 21ean aurkeztu zuen idatziari ere erantzun zitzaioa, bere eskubideak azalduz, betiere orain bilatzen duen babesgabetasuna saihesteko asmoz».*

Errekurtsioan adierazitako arrazoiak eta Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundeak egindako alegazioak ikusita, aplikatzekoak diren diziplinazko arauak kontuan hartuta, egiazki, lurralde-federazioko diziplina-organoek diziplinazko prozeduran zenbait forma- eta izapidetze-akats egin dituztela adierazi behar dugu, baina akats horiek ez dute eragiten errekurtsogileak



bilatzen dituen efektu baliogabetzaileak, ikusiko dugun moduan, ez diotelako inolako babesgabetasunik eragin eta ez direlako berme prozesalak inola ere murriztu.

Ildo horretan, gogoan izan behar dugu jurisprudentziak behin baino gehiagotan adierazi duenaren arabera formazko edo prozedurazko edozein arau-haustek ez duela babesgabetasuna eragiten; aitzitik, babesgabetasuna, funtsean, prozeduran alegatzeko eta eskubide guztiak bermatuta jarduteko eskubidea eragotzita izatean datza. Hortaz, alderdiak desparekotasun-egoeran egotea eta kontraesate-printzipioaren aplikazioa eragozteko jotzen da babesgabetasuntzat; beraz, prozedurazko akats guztiek ez dute prozedura osoa nulu bihurtzen, babesgabetasun material edo errealak eragiten dutenek bakarrik baizik, eta kasu honetan, berriro diogu, ez da halakorik gertatu, orain prozeduraren fase bakoitza aztertzean ikusiko dugun moduan.

1.- Organo honek hauteman duen lehen akatsa honako hau da: prozedura hau abiarazteko, izapidetzeko eta ebazteko Euskadiko Herri Kirol Federazioaren Diziiplina Erregimeneko Erregelamendua aplikatu da, nahiz eta Bizkaiko lurralde-federazioak berezko Diziiplina Erregelamendua duen onartua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatua (2008ko urriaren 8an). Hala, azken hori litzateke aplikagarria, txapelketaren lurralde-esparrua eta espedientean esku hartu duten diziiplina-organoak kontuan hartzen baditugu.

Dena den, bi diziiplina-erregelamenduen edukia berbera da joko-arauak edo txapelketetako arauak hausteari dagokionez. Hori dela eta, Euskadiko Herri Kirolen Federazioaren Diziplinazko Arautegia aipatzeak, okerra izan arren, ez du errekursoaren xede den ebazpena inola ere materialki baliogabetzen; are gehiago, errekurtsogilea bera ez da xehetasun horretaz ohartu eta ez du errekurtsoa jartzeko argudio gisa aipatu.



2.- Bizkaiko Federakundearen Diziplinazko Arautegiaren 28.3 artikulua eta, ildo berean, Euskadiko Herri Kirolen Federazioaren Diziplinazko Arautegiaren 26.3 artikulua honako hau ezartzen dute: «*Ezohiko prozedura, lehentasun eta sumarioaren irizpideetan oinarritua, joko ala lehiaketa arauen arau-hausteetan aplikatu ahal izango da*». Akats mota horien artean daude bi diziplina-erregelamenduetako 7. artikuluan jasotako guztiak (gogoan izan egozten den arau-haustea 7.2.b) artikuluan tipifikatuta dagoela eta, ondorioz, diziplina-espeditan ezohiko prozedura litzatekeela aplikatzekoa).

Hala ere, espediente honetan ohiko prozeduraren bidez ireki da ardurak argitzeko bidea, kiroleko arau orokorrak hausten direnean aplikatzen dena, alegia, eta ez joko edo txapelketetako arauak hausten direnean.

Ezohiko prozedura erabili ordez ohiko prozedura erabiltzeak ez dio inolako babesgabatasunik eragin errekurtsogileari; gainera, horri esker, prozeduraren izapidetzea eta ebazpena prozedura-berme handiagoekin egin dira eta are gehiago bermatu da zehapen-prozedurek berezkoa duten kontraesate-printzipioa.

3.- Ohiko prozeduraren arauketa aztertuz gero, ikusiko dugu bai Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundearen Diziplinazko Arautegiaren arabera (32. artikulutik 37.era) bai Euskadiko Herri Kirol Federazioaren Diziplinazko Arautegiaren arabera (30. artikulutik 35.era) diziplinazko epaile bakarrari dagokiola diziplina-espedita abiaraztea, izapidetzea eta ebaztea.

Kasu honetan, prozedura ez zen horrela izapidetu; espedita Bizkaiko lurralde-federazioko diziplinazko epaile bakarrak abiarazi eta ebatzi zuen, baina prozedura izapidetzeko izapidegile bat eta idazkari bat izendatu ziren.

Hala ere, Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundearen jarduteko modua, Diziplinazko Arautegia zorrotz bete ez arren, bat dator zuzenbidearekin



eta egokia da; izan ere, prozedurak irekitzen eta ebazten dituzten diziplina-organoak eta horiek izapidetzen dituztenak bereiztea zehapen-prozeduren berezko printzipio bat da. Hala dago jasota, halaber, Kirol Diziplinari buruzko Arautegia arautzen duen urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuan (20. artikulua eta hurrengoak) eta hori da aplikagarria, izaera osagarriarekin, Bizkaiko lurralde-federazioaren Diziplinazko Arautegiaren 44. artikuluan eta Euskadiko Federazioaren Diziplinazko Arautegiaren 42. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**4.-** Kargu-orria formulatzea eta ebazpen-proposamena egitea diziplina-prozedura izapidetzen duen organoari dagokio; kasu honetan, espedientearen izapidegileari. Eta hala egin zen espediente honetan, kargu-orri hori eta ebazpen-proposamena 2017ko urtarrilaren 9an formulatu baitzituen izendatutako izapidegile den [REDACTED] andreak.

Idatzi horretan, errekurtsogileari lizentzia lau hilabetez eteteko zehapena ezartzea proposatzen zen, etenaldi horrek ekartzen zituen berezko lege-efektuekin. Halaber, ebazpen-proposamen hori interesdunari jakinarazi zitzaion eta adierazi zitzaion egokiak iruditzen zitzaizkion adierazpen eta alegazioak egin zitzakeela 10 egun balioduneko epean, jakinarazpenaren datatik zenbatzen hasita.

Nabarmentzekoa da erruztatuak ez zuela izapide hori erabili eta ez zuela jakinarazi zitzaizkion kargu-orriaren eta ebazpen-proposamenaren aurkako alegaziorik egin.

**5.-** Zehapen-espedientea izapidetu eta bai kargu-orria bai ebazpen-proposamena formulatu ostean, diziplina-espediente hori ebaztea diziplinazko epaile bakarrari zegokion.



Hala egin zen, eta Bizkaiko lurralde-federazioko diziplinazko epaile bakarrak ebazpen hori eman zuen 2017ko otsailaren 21ean, ebazpen horretan honako hau adieraziz (letra lodiak eta azpimarrak geureak dira): «*Idatzi honen bidez, adierazten du erreferentziazko espedientearen izapidegileak emandako kargu-orria jakinarazi ostean, Iñaki Lopategi interesdunak kargu-orri horren aurrean alegaziorik egin ez duenez, lizentzia lau hilabetez eteteko zehapena **ezartzea erabaki** dela, etenaldi horrek berarekin ekartzen dituen efektuekin*». Ondoren, hau eransten zuen: «*Zehapena **ebazpen hau** [REDACTED] interesdunari jakinarazten zaion datan hasiko da likidatzen, eta egun horretatik aurrera hasiko dira zenbatzen zehapenaren lau hilabeteak*».

Egiazki, ebazpen horrek zenbait akats formal ditu. Horietako lehena da ebazpenaren izenburua okerra dela, hau da, «*Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundearen Diziplinazko Epaile Bakarraren behin betiko kargu-orria*» jartzen du, izaera juridikoa bestelakoa den arren.

Eta, bigarrenik, ebazpenak ez zuen informaziorik jasotzen ebazpenaren aurka jar zitezkeen errekurtsoei buruz, horiek desberdinak izanik Bizkaiko lurralde-federazioaren edo Euskadiko Federazioaren diziplinazko arautegia aplikatzearen arabera.

Hala, Bizkaiko Federakundearen Diziplinazko Arautegiko 42. artikulua honako hau ezartzen du: «*Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundearen diziplinazko epaileak emandako ebazpenak, lehen auzialdian, Euskadiko Herri Kirol Federazioaren Diziplina Batzordearen aurrean errekurritu ahalko dira, eta, bigarren auzialdian, halakorik badago, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean, indarrean dauden legeekin bat*».

Bestalde, Euskadiko Federazioaren Diziplinazko Arautegiaren 40. artikulua honako hau xedatzen du: «*Euskadiko Herri Kirol Federazioaren Diziplinazko Epaile Bakarrak emandako behin betiko ebazpenek federazio*



*bidea amaitzen dute eta Kirol Justiziako Euskal Batzordean errekurritu ahal izango dira, bere arautegi erregulatzailari jarraikiz».*

Adierazitako lehen akatsari dagokionez –zehapen-ebazpena gaizki identifikatzea–, akats hori zuzendutzat jo behar da, errekurtsogileak zehapen-ebazpenari loturiko deskargu-orria formulatu zuelako (ebazpena gaizki kalifikatzearen ondorioz) eta lurralde-federazioko diziplinazko epaile bakarrak beste ebazpen bat eman zuelako, 2017ko martxoaren 23an. Ebazpen horretan (kide anitzeko organo honetan errekurritu dena), 2017ko otsailaren 21eko ebazpenaren izaera juridikoa argitzen zen eta interesdunari jakinarazten zitzaion Kirol Justiziako Euskal Batzordean zegokion errekurtsua jartzeko eskubidea zuela, eta hark horixe egin zuen.

Errekurtsua jarri behar zen organoari dagokionez, KJEBren ustez, errekurtsu hori, lehen auzialdian, Euskadiko Herri Kirol Federazioaren Diziplina Batzordean jarri behar zen –edo diziplina-organo baliokide batean– eta bigarren auzialdian bakarrik KJEBn. Hori ez da hala gertatu, Euskadiko Herri Kirol Federazioaren Diziplinazko Arautegia aplikatu zelako, zegokiona aplikatu beharrean, hau da, Bizkaiko lurralde-federazioko Diziplinazko Arautegia, baina horrek ere ez du justifikatzen zehapen-ebazpena baliogabetzat jotzea; izan ere, prozesu-ekonomiaren printzipioak gomendatzen du errekurtsu hau orain KJEBk ebaztea, prozedura atzera eraman gabe errekurtsua Euskadiko Federazioaren diziplina-organoak ebatz dezan, neurri horrek prozedura luzatu baino ez lukeelako egingo eta errekurtsogileak administrazioarekiko auzibidea erabiltzeko aukera atzeratuko lukeelako, errekurtsogileak hori egitea egokitatzeko joko balu, hartutako ebazpenarekin ados ez dagoelako.

**6.-** Azkenik, argitu beharreko azken gai bat dago; alegia, errekurtsogileak alegatzen du zehapen-ebazpena ez dagoela behar bezala arrazoituta, Kirol





Diziplinari buruzko Arautegia arautzen duen urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuaren 26. artikulua eta, izaera orokorrekin, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. artikulua arrazoitzea eskatzen duten arren.

Gogoan izan behar da, finkatutako jurisprudentzia-doktrinaren arabera, ez arrazoitzeak edo behar bezala ez arrazoitzeak, akats formal gisa, ez duela ekintza baliogabetzen, horrek interesdunari babesgabetasuna eragiten badio salbu. Hala, behar bezala arrazoituta geratzen da, gertakariak laburki aipatuta eta zuzenbideko oinarriak adierazita; izan ere, gertakaria eta legedia aplikagarria jasotzea eskatzen zaio, diziplina-organoak errekurtsorearen xede den ebazpena emateko jarraitu duen prozesua ezagutu ahal izateko.

Kasu honetan, nahiz eta egia den Bizkaiko lurralde-federazioko diziplinazko epaile bakarrak ahalegin handiagoa egin zezakeela zehapen-ebazpenak arrazoitzeko, errekurtsogileak diziplina-prozeduran izan duen esku-hartzea kontuan hartuta, zalantzarik gabe ondorioztatzen da ondo ezagutzen zuela zergatik egozten zaion arau-haustea eta zergatik ezartzen zaion zehapena, baita Bizkaiko lurralde-federazioko diziplinazko epaile bakarrak aplikatutako arautegia ere. Beraz, ez zaio inolako babesgabetasunik eragin eta, ondorioz, kontra egiteko arrazoi hori ez da aintzat hartzekoa.

Ondorioz, ez dago behar adina arrazoirik errekurtsogilearen eskakizunak onartzeko; beraz, aurkaratzea ezetsi egin behar da eta errekurtsio honen xede diren Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundearen diziplina-organoen jarduketa zuzenbidearekin bat gauzatu dela berretsi behar da.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

**EBAZTEN DU**

██████████ jaunak lau hilabeteko lizentzia-etenaldia ezartzen dion Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundearen diziplinazko epaile bakarraren ebazpenaren aurka jarritako errekurtsoa ezestea eta diziplinazko zehapen hori zuzenbidearekin bat gauzatu dela berrestea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio interesdunak Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango du Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurtsogilearen helbidearen arabera dagokionean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 14a

**JOSÉ LUIS IPARRAGIRRE MUJIKA**

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea